

Paradigma berri bat: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Bilbao Sarria, Paul

1996ko ekainaren 6an Bartzelonako Unibertsitateko paraninfoan eskubide kolektiboekin lotutako argazki historikoa erdietsi zen, izan ere, hizkuntza-eskubideak eskubide subjektibo gisa jasotzen zituen lehen dokumentua aurkeztu zuten 61 Gobernu Kanpoko Erakunderen, 41 PEN talderen eta mundu osoko 40 adituren babesarekin: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (HEDU).

2016ko abenduaren 17an leporaino beteta zegoen Donostiako Kursaal jauregian Europako hogeita hamar hizkuntza-komunitate gutxiagotu baino gehiagoren normalizazioaren alde lan egiten duten ehunetik gora gizarte eragilek urte eta erdiko prozesuaren ostean adostutako ituna aurkeztu zuten: Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa (HEBP).

1996tik 2016ra, Bartzelonatik Donostiara, elkarbizitza justu berri baterako zubia eraikitzeko orubea prestatu dugu urte eta erdiko prozesuaren ostean. Hain zuzen ere, Europako herritarren arteko berdintasuna bermatzeko lagungarria izango



Protokoloaren aurkezpena Kursaal Jauregian, 2016ko abenduaren 17an, Europako hizkuntza-komunitateetako ordezkariak

den tresna. Europako hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten duten erakundeen beharretan oinarritutako dokumentua da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa, eta nola ez, gizarte eragileek botere publikoei egiten dieten ekarpena.

1. Gizarte eragileak hizkuntzen normalizazio-prozesuan

Edozein hizkuntzaren normalizazio-prozesua soziala eta politikoa dela esan izan da. Horrela, hizkuntza-politika hoberena izanik ere, prozesuak babes soziala behar du, eta, alderantziz, babes sozialak bakarrik ez du hizkuntzaren normalizazioa lortuko.

Horrekin batera aitortu behar da Europako hizkuntza-komunitateen inguruan eratutako gizarte zibil antolatua lana. Bizitza demokratikoago batera jotzeko nahiak gizarte zibilaren aldarrikapena eta bizi gogoia suspertu ditu, eta horri esker lortu da herritarren sentsibilitatean eragitea.

Europa osoan zehar hizkuntza-komunitateak euren berezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatu dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte erakundeak. Protokoloak horien bilgune izan nahi du, Europako gizarte zibilak hizkuntza-aniztasunaren garapenerako proposamena gauzatzean lidergoa izan dezan.

Azken hamarkadotan egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen berreskurapen-prozesuetan ekarpen handiak egin dituzte gizarte eragileek, hain zuzen ere, lau eremu nagusitan:

- Hitzun berriak sortuz.
- Hizkuntza gutxituan bizitzeko espazioak sortuz.
- Hizkuntza gutxituan bizi ahal izateko tresnak sortuz.
- Berezko hizkuntza gutxituan bizitzeko eskubidearen aldarrikatuz.

Hizkuntzen beharretatik lan egiten duten ehunka eragile dira, ezelango dependentzia politiko edo instituzionalik gabekoak, modu sinbolikoan, milioika hiztunen bozeramaileak. Horrexegatik, hain zuzen ere, Protokoloan jasotako edukia hizkuntza gutxiagotuen alde lan egiten duten gizarte eragileen adostasunetik eraiki da, eta horrek ematen dio Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloari baliorik handiena.

2017ko apirilaren 30eko datarekin, hona hemen, Protokoloarekin bat egiten duten eragileek ordezkatzeko dituzten hizkuntza-komunitateak:

Alsaziera	Frisiera	Katalana
Aragoiera	Friulera	Kornubiera
Aromaniera	Galesa	Korsikera
Asturiera	Galiziera	Ladiniera
Behe saxoiera	Galoa	Oil hizkuntzak
Bretoiera	Hungariera	Okzitania
Eskoziako gaelikoa	Irlandera	Sardiniera
Esloveniera	Kareliera	Tatarera
Euskara	Kashubiera	Voro

Kontseilua euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten berrogei eragileren eta erakunderen bilgunea izanik, euskararen gizarte eragileen ordezkari ezin egokiagoa izan da horrelako prozesu bat bideratzeko. Finean, Kontseiluaren barruan kokatzen dira egun euskararen normalizazioaren alde lan egiten duten eragile nagusienak. Halere, prozesu honetan Kontseiluko kide ez diren euskalgintzako beste eragile batzuek ere parte hartu izan dute.

Gauzak horrela, hona hemen euskarari dagokionez, Protokoloaren atzean dauden euskalgintzako eragileak:

- | | | |
|--------------------|----------------------|-------------------|
| – BEHATOKIA | – ANTZERKIZALEEN | – ILAZKI |
| – ADMINISTRAZIOAN | ELKARTEA | – JAKIN |
| EUSKARAZ | – BERTSOZALE | – KARMELDARRAK |
| – AEK | ELKARTEA | – KATXIPORRETA |
| – ARGIA | – EUSKAL HERRIKO | – KRISTAU ESKOLAK |
| – ARTEZ | IKASTOLAK | – LANEKI |
| – BAGERA | – KANTUZALEEN | – MAIZPIDE |
| – BAI EUSKARARI | ELKARTEA | – MINTZANET.NET |
| ZIURTAGIRIA | – EUSKAL IRRATIAK | – OEE |
| – BERRIA TALDEA | – EUSKAL | – PUNTUEUS |
| – BIZKAIA IRRATIA | KONFEDERAZIOA | FUNDAZIOA |
| – BIHE | – EUSKALTZALEEN | – SORTZEN |
| – EHIGE | TOPAGUNEA | – TINKO |
| – ELHUYAR TALDEA | – GABRIEL ARESTI | – TOKIKOM |
| – ELKAR FUNDAZIOA | EUSKALTEGIA | – UEU |
| – EMUN - | – GARABIDE | – URRATS |
| – EUSKAL AKTOREEN | – GEREDIAGA | – URTXINTXA |
| BATASUNA | – GOIENA | – URUMEA/ ALTZA |
| – EUSKAL EDITOREEN | – HEKIMEN | EUSKALTEGIAK |
| ELKARTEA | – HIK HASI | – ZINEA.EUS |
| – SAREAN | – HITZEZ EUSKALTEGIA | – UNESCO ETXEA |
| – EUSKAL HERRIAN | – IBERBA | |
| EUSKARAZ | – IKA | |
| | – IKAS | |

2. Gure erreferentzia: Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala

1948ko Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak bere hitzaurrean gizakiaren oinarrizko eskubideetan, gizakiaren duintasun eta balioan eta gizonen eta emakumeen eskubideen arteko berdintasunean fedea agertu zuen, eta bigarren

artikuluari jaso zuen eskubideak eta askatasunak izaki orori dagozkiola, eta ez dela inor bereziko, besteak beste, hizkuntzaren gorabeheragatik.

1950eko azaroaren 14ko Europako Kontseiluaren Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Hitzarmenak hitzaurrean adierazi zuen Europako Kontseiluaren helburuetako bat kideen arteko lotura estutzea dela, eta hori lortzeko bidea giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babesa eta garapena dela. Halaber, Hitzarmenaren 14. artikuluan berretsi zuen eskubide eta askatasun horiek bermatu egin behar direla hizkuntza-bereizkeriarik gabe.

Bi oinarri horien garapen gisa ulertzen dugu Bartzelonan 1996an onartutako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa zehazteko oinarrizko dokumentua, eta horixe izan da Protokoloa prestatzeko izan dugun erreferente nagusia.

Egia da, askotan, gehiegitan, erabiltzen dela historiko hitza, baina Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala benetan historikoa dela esango nuke. Historikoa ez ezik, iraultzailea ere izan zela esango nuke. Izan ere, lehen aldiz hizkuntza-eskubideak diziplinatuz hartu ziren, eta Deklarazioak hizkuntza-eskubideen dimentsio indibiduala eta kolektiboa banaezinak eta interdependentek direla jaso zuen. Hizkuntza-komunitate baten barruan eratzten da, eta komunitate horren barruan pertsonak hizkuntzak modu indibidualean erabiltzen dituzte. Ondorioz, eskubide indibidualak egikaritzeko dira, beti ere, baldin eta hizkuntza-komunitate eta hizkuntza-talde guztien eskubide kolektiboak errespetatzen badira.

Historikoki eztabaida egon izan da ea hizkuntza-eskubideak eskubide subjektiboak izan behar diren edo, bestela, oinarrizko eskubideen ikuspegi linguistikoaz hitz egin behar dugun. Deklarazioak lehenaren aldeko apustu garbia egin zuen, eta beraz, ordutik dokumentu batek bildu ditu hizkuntza-eskubideak zein izan beharko lirartekeen.

2.1. Deklarazioaren berrikuntzak

Deklarazioaren azterketa sakona egingo ez badugu ere, interesgarria da ikustea zein desberdintasun agertzen duen lehenago beste erakunde batzuetan, Nazio Batuen Erakundean edo Europako Kontseiluan esaterako, onartu ziren itunekin alderatuz. Lehenik eta behin, Deklarazioak jaso zuen berdintasun-printzipioa aipatu beharko genuke; beste sailkapen batzuk alde batera utziz Deklarazioak hizkuntza guztien berdintasunaren aldarrikapena egiten duelako.

Horretarako Deklarazioak eskubide zehatz batzuk esleitzen dizkio hizkuntza orori, hizkuntzen arteko elkarbizitza eta berdintasuna bermatzeko gutxieneko eskubideak zehaztuz:

5. artikulua.

Deklarazio honen funtsean dago printzipio bat zeinaren arabera hizkuntza-komunitate guztien eskubideak berdinak diren, kontuan izan gabe bere kontsiderazio juridiko edo politikoa den hizkuntza ofizialarena, erregionalarena edo minoritarioarena. Hizkuntza erregional edo minoritario bezalako izendapenak ez dira testu honetan erabiltzen zeren eta, kasu batzuetan hizkuntza erregional edo minoritariotzat aitortua izateak eskubide hauek egikaritzea erraz badezakeen ere, horiek eta antzeko izendapenak usuegi erabiltzen dira hizkuntz komunitate baten eskubideak murrizteko asmoz

Bigarrenik, azpimarragarria da Deklarazioak eskubideen babeserako definitzen duen subjektua, izan ere, ordura arte erabili ez zen subjektu mota berri bat jaso zuen: hizkuntza-komunitatea. Horren harira, ondoko definizioa egin zuen:

1.1. artikulua.

Deklarazio honetan hizkuntza-komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean –eremu errekonozitua ala ez-finkatua, bere burua herrizat duena eta hizkuntza komun bat garatu duena kideen arteko komunikazio naturalaren eta kultur kohesioaren bidetzat.

Lurralde bateko berezko hizkuntza edo hizkuntza propioa deizioekin, lurralde horretan historian zehar ezarritako komunitatearen mintzariari egiten zaio erreferentzia.

Ordura arteko hitzarmen eta itunetan hizkuntzen arteko desberdintasunak edo mailaketak agertu izan ziren: lurraldeko hizkuntzak, ofizialak, gutxiengoak hizkuntzak, nazioen hizkuntzak eta abar. Deklarazioak horrekin guztiarekin apurto eta muga politiko-administratibo-ekonomikoetatik at dagoen babeserako subjektua definitzeko ahalegina egiten du. Halaber, babeserako subjektu den hizkuntza-komunitateari edota berezko hizkuntzari eskubide eta babes mailarik gorena eman die. Hala ere, berdintasun-printzipio horretan, eta beste modu batera ezin izan zitekeelako, hizkuntzen elkarrekiko errespetua eta elkarbizitza bermatuko dituen oinarri batzuk ezartzen dira, eta horretarako, mailaketa egiten da eskubideak esleitzerakoan, 1.2. artikuluan agertzen duen bezala:

[...] hizkuntza-eskubideen oso-betetasunaren erreferentetzat hartzen du hizkuntza-komunitate historiko bat bere lurralde-eremuan, eremu hau ulerturik ez soilik komunitate hori bizi deneko geografia zati gisa, baizik eta hizkuntzaren garapen osorako ezinbestekoa den espazio sozial eta funtzional gisa ere [...]

Hortaz, eskubideen maila gorena finkatzen da, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateari bere lurralde historikoan aitortu beharreko eskubideak. Hortik abiatu, eskubideak mailakatu egiten ditu. Bigarren mailan hizkuntza-taldeak daude, alegia, beste hizkuntza-komunitate batean kokaturik daudenak. Talde horiek historikotasun txikiagoa dute eta haien hizkuntza ez da berezkoa edo hizkuntza propioa. Hori dela eta, talde horietako hiztunek eskubide murrizagoak dituzte, nahiz eta bien arteko elkarbizitza errespetu osoz eta printzipio demokratikoak errespetatuz egin beharko diren.

Hori horrela izanik eta mailaketa egonik ere, Deklarazioaren arabera hizkuntza orori aitortu behar zaizkio gutxieneko berme eta eskubideak; hain zuzen ere, berdintasun-printzipioaren edukiari eusteko.

Bestalde, Deklarazioak berezko hizkuntza kontzeptuaren eduki juridikoari erreparatu behar diogu. Ordura arte ofizialtasuna edo koofizialtasuna soilik ziren hizkuntzen estatusaren adierazle eta ezaugarri horiek besterik ez zuten eragiten ondorio juridikorik. Deklarazioak sailkapen horrekin hautsi eta horien gaineko ezaugarri bat erabili zuen: Berezko hizkuntza. Horren arabera, hizkuntza baten berezotasuna adierazten zuen, lurralde zehatz batean hizkuntza horrek duen antzinakotasun edo historikotasuna, baina ofizial gisa aintzatetsitako beste hizkuntzen aldean, berezko hizkuntza izateak ez zion ezer eransten.

Horrekin batera, Deklarazioaren arabera eskubide indibidualak eta kolektiboak banaezinak eta elkarren mendekoak dira, hau da, hizkuntza-eskubideen di-

mentsio indibiduala eta kolektiboa ezin dira bereizi. Gainera, elkarren osagarri dira hizkuntza-komunitate baten barnean garatzen baitira taldeak, eta aldi berean, komunitate horren barnean norbanakoak erabiltzen du hizkuntza eta hartaz baliatzen da. Horrela, bada, norbanakoen hizkuntza-eskubideak ezin dira gauzatu komunitate eta hizkuntza-talde guztien eskubideak errespetatzen ez badira.

2.2. Deklarazioaren ibilbidea

Deklarazioa sinatutakoan, UNESCO erakundeko idazkari Federico Mayor Zaragozari helarazi zitzaion. Gizarte zibilak UNESCOren mahai gainean instituzio horretan lanerako ildo gisa hizkuntza-eskubideak kontuan hartu beharra eta abiapuntu gisa Bartzelonako Deklarazioa kontuan hartzeko eskatu zion. Izan ere, prozesuaren azken helburua oso argia zen: UNESCOk gomendioa egin ziezaiola Nazio Batuen Erakundeko Asanblada Orokorrari Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala bere egiteko, edota Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren osagarri gisa onartzeko.

Lehen bi urteetan aurrerapauso interesgarriak izan ziren. Horrela, hizkuntzen barrutia sortu zen, edota Mayor Zaragozaren agintearen azken urtean Hizkuntza Aniztasunaren Batzorde Kontsultiboa eratu zen. Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren Jarraipen Batzordea haiekin bildu eta Deklarazioaren azterketa eta hizkuntza-eskubideei buruzko testu berri baten prestakuntza helburutzat hartu zuen Batzordeak.

Hala ere, Koichiro Maatsura jaunak Mayor Zaragozaren arduraren hartu zue-nean, gauzak zeharo aldatu ziren. Batetik, Hizkuntzen Batzordea desagertu zen ustezko arrazoi ekonomikoengatik eta interlokuziorik ez da izan ordutik UNESCO-rekin.

Are gehiago, Deklarazioaren beraren Jarraipen Batzordeko kideek Estatu-tako hainbat ordezkariekin egindako bileretan aski argi geratu zen hizkuntza guztien berdintasuna aldarrikatzen zuen edota hizkuntza-eskubideen izaera indibiduala eta kolektiboa bere egiten zituen dokumentuak urduri jartzen zituela Estatu-tako botereak, izan ere, haiek eman behar zioten bidea Deklarazioari, eta ondoren, bertan jasotzen ziren artikulua bete beharko zituzten.

Halere, Deklarazioak bere azken helburua bete ez arren, gizarte eragileontzat erreferentziatzeko dokumentua izan da hizkuntza-eskubideen aldarrikapenean, eta arrazoi horrengatik erabaki zuen Kontseiluak dokumentu horrek biltzen dituen edukien inguruko lanketa berri bati ekitea.

2.3. Bestelako erreferentziak

Esan bezala, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala izan da Protokoloari norabidea jarri dion Ituna. Halere, UNESCOko 2003a onartutako *Hizkuntzen Bizitasuna eta Desagertzeko Arriskua* delako txostena ere izan da beste oinarrietako bat.

Txosten horretan hizkuntzen bizitasuna ebaluatzeko faktoreak eta mailak zehaztu zituen, eta beraz, Protokoloaren neurrien ebaluazio-adierazleak prestatzeko arras erabilgarriak izan dira. Hona hemen Protokoloak baliatu dituen UNESCOren bizitasuna neurtzeko faktoreak:

1. Hizkuntzaren belaunaldien arteko transmisioa.
2. Hitzunen kopuru absolutua.
3. Hitzunen kopurua populazio osoaren arabera.
4. Aldaketak hizkuntzaren erabilera-esparruetan.
5. Eremu berriak eta hedabideak.
6. Hizkuntzaren ikaskuntzarako eta irakaskuntzarako materialak.
7. Gobernuen eta instituzioen jarrerak eta politikak hizkuntzekiko, bai eta ofizialtasun estatusa eta erabilera ere.
8. Komunitateko kideen jarrerak hizkuntzarekiko.
9. Dokumentazio-motak eta kalitatea.

3. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa

Bartzelonako lagun filosofo batek askotan erabili izan du *Eskubideen Arkua* ize-neko metafora. Horrela, arku imaginario bat marrazten badugu eta albo batean eskubideak zerrendatzen baditugu, eskubideetako bakoitzak arkuaren beste aldean bermatzeko neurri bat izan behar duela dio. Horrela ez bada, eskubideez baino, homiliaz ari garela esaten du.

Arrazoi osoa du orain politikan buru-belarri dabilen filosofian katedradun Josep-Maria Terricabrak hori dioenean, eta horrexegatik, beharrezkoa ikusten genuen *Hizkuntza-eskubideen Arkua* osatzea. Izan ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak eskubideen zerrenda egin bazuen ere, nahitaezkoa zen eskubide horietako bakoitza bermatzeko neurriak zehaztea, besteak beste, eskubideen aldarrikapena homilia bihurtu ez dadin.

Horrexegatik, Protokolo bat prestatu da, izan ere, *Protokoloa* terminoa itun edo hitzarmen bezalako adierazpenak baino formalagoak ez diren akordioetarako erabiltzen da. Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa itun zehatz batean oinarritutakoa izango da, hain zuzen ere, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean. Hartara, Protokoloak jasotzen dituen neurriek aipatu Deklarazioak aitortutako eskubideak bermatzeari begirako bide-orrria irudikatuko eta zehaztuko dute.

Horrela, Protokoloak hiru helburu nagusi bete nahi izan ditu. Batetik, hizkuntza-aniztasuna bermatzea eta hizkuntzen garapena ziurtatzea elkarbizitzarako eta bakerako oinarri funtsezkoak direla aldarrikatzea. Bigarrenik, hizkuntza-berdintasunaren alde eta desabantaila egoeran dauden hizkuntzen garapenerako tresna eragingarria sortzea. Eta, azkenik, hizkuntza-komunitateak prozesu honetan subjektu gisa agertzea eta gizartea kudeaketa justu horren berme dela aldarrikatzea.

3.1. Balioak eta helburuak

Arestian adierazi bezala, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren berrikuntza nagusiak berdintasun-printzipioa eta eskubideen babeserako definitzen dituen subjektuak izan ziren. Hortaz, Deklarazioaren printzipioei eta zehaztapenei jarraiki, Protokoloan eskubideen babeserako subjektuak deklarazioak jasotako ber-

dinak izango dira. Hartara, Protokoloak abiapuntutzat du hizkuntza-eskubideak indibidualak eta kolektiboak direla. Eta Protokoloan hizkuntza-komunitatea aipatzean esan nahi da edozein gizarte, historian zehar lur-eremu zehatz batean finkatuta, eremu hori errekonozituta ala ez, bere burua herrizat daukana, eta hizkuntzak komun bat garatu duena, kideen arteko komunikazio naturalerako eta kultur kohesiorako bide bezala. Halaber, Protokoloak hizkuntza-taldetzat dauka beste hizkuntza-komunitate baten lur-eremuan kokatuta dagoen eta hizkuntza bera duen edozein giza talde.

Horrekin batera, azpimarratu behar da Protokoloak eskubide pertsonal bese-terezintzat, eta edozein egoeratan egikaritzeko modukotzat dauzkala honako hauek: hizkuntza-komunitate bateko kideztzat aitortua izateko eskubidea; jendau-rean nola maila pribatuan hizkuntza erabiltzeko eskubidea; norberaren izena era-biltzeko eskubidea; jatorrizko hizkuntza-komunitateko beste kideekin harremanak izateko eta elkartzeko eskubidea; bai eta kultura propioa garatzeko eskubidea ere.

Elementu horiek oinarri baditu ere, garrantzitsua da aztertzea zein oinarrizko lau baliok ardazten duten Protokoloa.

- Lehenik eta behin **elkarbizitzak eta bakeak** ardazten dute Protokoloa. Gi-zarte-ongizatean, elkarbizitzan eta bakean sakontzeko ekarpen gisa aur-kezten dugu Protokoloa. Kontuan izan behar dugu, bakea pertsonen eta giza taldeen bizi baldintza duinak ezartzearen ondorioa dela. Hartara, hiz-kuntza-komunitateen duintasunaren errespetuak ekarriko du bakea. *Pax linguae* hitzaren edukia bermatzeko tresna da dokumentu hau.
- Bigarrenik, *aniztasuna* da Protokoloa ardazten duen bigarren elementua. Hizkuntza-aniztasuna babestu behar da gizateria osoaren aberastasun kul-turalaren parte delako. Berau zaintzea guztion betebeharrak etikoa da. Egun, pertsonak eta gizarteak homogeneizazio kulturalera daramatzaten indar eta inertzia indartsuak daude. Homogeneizazioak horiek pobretzea supo-satuko luke, eta beraz, horrexegatik aniztasuna Protokoloaren edukien ar-datz bihurtu da.
- Hirugarrenik, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean berrikuntza izan zen **berdintasunaren** elementua dugu ardatz. Protokoloak munduko hizkuntza guztiei balio bera aitortzen die. Gaur egun, euren egoeran des-berdintasun handiak daude. Zenbaitek garapenerako oztopoak dituzte eta herritarren arteko oinarrizko printzipio den berdintasuna ez da bermatzen.
- Protokoloaren laugarren ardatza **eskubideak** dira. Giza Eskubideen De-klarazio Unibertsalaren bigarren artikularen arabera pertsona orori hiz-kuntzagatik diskriminatua ez izateko eskubidea aitortzen zaio, eta artikulua horren sokari tiraka sortu dugu Protokoloa.

Izan ere, gaur egun European hizkuntza-komunitateek bizi dituzten baldin-tzetan desorekak eta desabantailak daudenez, egoera gutxiagotuan dauden hiz-kuntzei lehentasunezko trataera ematea berdintasunerako urrats bezala ulertzen dugu, eta halaxe jasotzen du Protokoloak oinarrizko printzipioetan. Hizkuntzen ga-rapenerako baldintza sozial, politiko eta ekonomiko egokiak bermatuz soilik ba-

bestu daiteke hizkuntza-aniztasuna. Hurrengo belaunaldiei ahalik eta testuinguru kultural eta linguistiko aberatsena utzi ahal izateko, pertsonen eta komunitateen aukera-berdintasuna, bai eta horiek eskubideak ere, bermatzeko baldintzak sortu nahi izan dira Protokoloaren bidez.

3.2. Bidaideak

Orain arte Europan inoiz egin ez den prozesua izan da Protokoloa osatzeko prozesua. Proiektuaren hasieratik bertatik partaidetza sustatu nahi izan genuen. Alegia, ez genuen nahi Euskal Herrian dokumentu bat sortu, ondoren, nazioarteko eragileak atxikitzeko. Gure asmoa egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen normalizazioaren alde lan egiten duten erakundeen ekarpenekin osatutako Protokoloa egin nahi genuen, eta halaxe egin dugu.

Dena dela, hori guztia antolatzeko, Europan sona eta eskarmentu handiak dituzten sei erakunderi gonbita helarazi zitzaion proiektua bideratzeko. Aipatu erakundeak honako hauek dira:

ELEN – EUROPAKO HIZKUNTZA BERTINTASUNAREN ALDEKO SAREA

ELEN europar mailako gobernu kanpoko gizarte eragileen bilgunea da. Hizkuntza gutxiagotuen eta hizkuntza-eskubideen sustapenaren, babesaren eta biziberritzearen alde lan egiten du. Europako hogeita bat estatutako 42 hizkuntza-komunitate ordezkatzeko ditu. 2010ean sortu zen eta EBLUL (European Bureau for Lesser Used Languages – Hizkuntza Gutxiagotuen Europako Bulegoa) zena ordezkatzeko du. Estatus aholku emailea du Nazio Batuen Erakundearen. Euskararen Gizarte Erakundearen KONTSEILUA bazkide sortzailea da eta egun zuzendaritzan parte hartzen du.

CIEMEN

CIEMEN gizarte zibil katalanaren erakundea da eta bertako errealitate nazionala munduaren aurrean ezagutarazteko eta sustatzeko lan egiten du, bai eta estaturik gabeko herrien eta nazioen ezagutza hedatzeko eta haien eskubide kolektiboak defendatzeko ere.

Hizkuntzaren eremuan, hizkuntza-eskubideen defentsaren alde eta hizkuntzaren erabilera sozialaren alde bideratutako hainbat ekintza egin izan ditu. CIEMENen lan arloak hiru dira nagusiki: Ezagutzaren promozioa, nazioen eta gutxiengo etniko guztien eskubideekiko aitortzea eta elkartasuna. Azkenik, aipatu behar da CIEMENek Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren idazkaritza teknikoaren ardura izan zuela.

LINGUAPAX INTERNATIONAL

Munduko hizkuntza aniztasuna balioztatzeke eta babesteko gobernu kanpoko erakundea da. UNESCOk 1987an sortu zuen, baina orain erakunde independentea da. LINGUAPAXen arabera hizkuntzek gizateriaren kultur aniztasunaren aberastasuna adierazten dute eta, beraz, horien babesa bakearen eta nazioarteko elkar ulertzearen aldeko oinarritzeko ekarpena da. Horretarako, LINGUAPAXek soziolinguistikaren eremuko ikerketa koordinatua gizarteratzen du.

Halaber, hizkuntza aniztasuna babesteko prozesu ideologiko, legegile edo politikoa aholkuak ematen ditu, bai eta hizkuntza-komunitate zehatzen berreskurapenerako programetan ere.

LINGUAPAXek aholkularitza lanak egin izan dizkio hizkuntza-politikaren eta plangintzaren esparruan hainbat gobernuri, besteak beste, Txina, Brasil, Paraguai edo Bolivia. Halaber, hizkuntzen berreskurapenarekin lotutako proiektuetan lan egin izan du Nigerian, Hego Afrikan, Senegalen, Tanzanian, etab.

ECMI – GUTXIENGOEN AFERETARAKO EUROPAKO ZENTROA

ECMIk praktika eta politikari buruzko ikerketak zuzentzen ditu, informazioa eta dokumentazioa ahalbideratzen ditu eta aholku-zerbitzuak eskaintzen ditu gehiengo eta gutxiengo inguruko gaietan. Europako gobernuak eta gobernuen arteko erakundeak aholkatzen ditu, baita eta gutxiengo taldeak ere. Zentroa komunitate akademikoarekin, hedabideekin eta publikoarekin, oro har, lankidetzan ari da informazio puntuala eta azterketak eginez. 1996an sortu zen. Instituzio independentea da eta diziplina anitzekoa. Zentroak harreman aktiboa mantentzen du gatazken konponbidean eta etnien arteko harremanetan inplikaturik dauden beste instituzio akademikoekin eta Gobernu Kanpoko Erakundeekin. Arlo horietan lankidetzako proiektuak egiten ditu.

PEN INTERNATIONAL – ITZULPEN ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BATZORDEA

Mundu zabaleko idazleen elkarte honek leku guztietako idazleen arteko adiskidantza eta lankidetzaren sustatzea du helburu, kideek edozein ikuspuntu politiko edo bestelakoa badute ere. Elkartearen jomuga da adierazpen askatasunaren alde borrokatzea.

Hizkuntza gutxituetan egindako literatura beste hizkuntzetara itzultzeko baliabideak eskaintzeaz gain, hizkuntza txikien arteko itzulpenak ere sustatzen ditu. Estaturik gabeko hizkuntzen defentsan ere aritzen da eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala sustatu egin zuen, bai eta Hizkuntza-eskubideen Gironako Manifestua ere.

UNPO - ORDEZKATURIK GABEKO HERRI ETA NAZIOEN ERAKUNDEA

Nazioarteko erakundea da. Herri indigenetako, gutxiengoetako eta lurralde aitortzarik ez duten edota lurraldea okupatuta duten taldeetako kideek osatzen dute. Horiek guztiek bat egin dute haien giza zein kultura eskubideak edota ingurumena babesteko, eta eragiten dien gatazkei irtenbide bakeetsuak aurkitzeko.

UNPOko kideen helburuak desberdinak izan arren, baldintza batek batzen ditu: Nazioarte mailan ez daude egoki ordezkaturik. Horrexegatik, UNPOk nazioarteko foro bat sustatzea du helburu, bere kideak partehartzaile eta ekarpen egile eragingarriak izan ahal izateko nazioarteko komunitateari begira. Izan ere, mundu gero eta interdependenteagoan bizi gara eta, beraz, gero eta garrantzitsuagoa da eskubideak ukatuta dituzten horiek zeinek bere egoeraren berri aurkezteko aukera izatea.



2015eko martxoan, Miramar Jauregian. Talde Antolatzaileko, DSS2016ko eta Kontseiluko ordezkariak proiektua aurkezten.

Sei erakunde horiek lau bilera egin zuten 2015 eta 2016an zehar eta honako hauek erabaki zituzten:

- 2015eko martxoan: Protokoloaren oinarriak, balioak, helburuak eta terminologia zehaztu.
- 2015eko uztailen: Batzorde Zientifikoa izendatu. Neurrien eta adierazle ezaugarriak definitu.
- 2016ko ekainean: Protokoloaren alde literarioa osatu. Etorkizuneko lanildoak definitu.
- 2016ko urrian: Protokoloaren oinarrizko printzipioak erabaki. Behin betiko bertsioa onartu.

2015eko uztailen, beraz, Batzorde Zientifikoa izendatu zen. Protokoloak babes akademikoa beharko lukeela ondorioztatu zuten talde horiek. Izan ere, ekarpen guztiak gizarte eragileen eskuetatik etorri arren, ezinbestekoa zen ekarpen horiek guztiek blindaje akademikoa izatea, Protokoloa erreferentziazko bihurtzeko. Batzorde Zientifikoaren ardura nagusia Protokoloari ekarpen kualitatiboak egitea izan da. Maila honetako dokumentu batek ikuspegi zientifikoa ere izan behar du txertatuta, eta horrexegatik erreferentziazko adituen laguntza eta aholkuak ere izan ditugu.

Europako hamasei adituk osatu zuten, beraz, Batzorde Zientifikoa: Alexandra Büchler, Robert Dunbar, Ewa Chylinski, María Pilar García Negro, Johan Häggman, Elin Haf Gruffydd Jones, Dawyth Hicks, Conchúr Ó Giollagáin, Miquel Strubell, Ferran Suay, Iñigo Urrutia, Fernand de Varennes, Jaume Vernet, Durk Gorter, Iñaki Martínez de Luna eta Ane Ortega.

Batzorde Zientifikoak bi bilera egin zuen. Lehenean, Protokoloaren hezurdura zehaztu eta Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren eduki guztia antolatu, gako-hitzak erabaki eta eremu eremu gizarte eragileek ekarpenak egiteko moduko fitxak prestatu zituen. Bigarrenean, Batzorde Zientifikoak hamarnaka gi-



Batzorde Zientifikoaren lehen bilera Donostian, 2015eko abenduan.

zarte eragileek bidalitako ehunka ekarpenak antolatu zituzten. Horretaz gain, ekarpenak neurri zehatz bihurtu zituzten, neurriak betetzen diren egiaztatzeko adierazleei buruzko hausnarketa orokorra egin zuten, eta, azkenik, Protokoloaren zirriborroa onartu zuten.



2016ko martxoan Belfasten antolatutako lan-saioa bertako hizkuntza-eragileekin.

3.3. Atalak eta neurriak

Aurreko puntuan esan bezala, urte eta erdiko prozesuaren ostean osatutako dokumentua da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa. Are gehiago, hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzeko bide-orrria zehazteko dokumentua da. Horretarako, beraz, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak aitortzen dituen eskubideak bermatzeko neurri zehatzak proposatzen ditu Protokoloak.

Gauzak horrela, Deklarazioaren beraren egitura errespetatu du, eta beraz, zazpi eremutan dauden sailkatuta 185 neurriok. Jarraian sei eremu nagusiak eta eremu horietako atalak jaso ditugu:

3.3.1. Administrazio publikoak eta instituzioak

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 15, 16, 17, 18, 19, 20, 21 eta 22. artikuluekin lotutako neurriak.

A. ARRETA HIZKUNTZA GUTXITUAN

1. HERRITARREK ZERBITZUAK HIZKUNTZAN GUTXITUAN JASOTZEKO DUTEN
ESKUBIDEA LEGEZ BABESTUTA DAGO

2. HERRITARREI ZERBITZU GUZTIAK HIZKUNTZA GUTXITUAN EMATEN ZAIZKIELA
BERMATZEA

3. KANPO-KONTRATAZIOA

4. LEHENTASUNEZKO EREMUAK
 - 4.1. OSASUNGINTZA

 - 4.2. JUSTIZIA-ADMINISTRAZIOA

 - 4.3. POLIZIA

B. KOMUNIKAZIOA

C. HIZKUNTZA GUTXITUA ETA LAN-EREMUA

3.3.2. Hezkuntza

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 23, 24, 25, 26, 27, 28, 29 eta 30. artikuluekin lotutako neurriak.

A. HEZKUNTZA FORMALA

1. HAUR-HEZKUNTZA

2. DERRIGORREZKO HEZKUNTZA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZA

3. LANBIDE-HEZIKETA ETA -TREBAKUNTZA

4. UNIBERTSITATEA ETA GAINERAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZA
 - 4.1. IKASKETA-PLANA

 - 4.2. IKERKETA

5. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

B. HEZKUNTZA EZ-FORMALA

1. AISIALDI-ZENTROAK, KIROL-TALDE ETA FEDERAZIOAK

1. IRAKASLEAK

2. HEZITZAILEAK

3. ETENGABEKO TREBAKUNTZA

D. HELDUEK HIZKUNTZA GUTXITUA IKASTEA

E. CURRICULUMA ETA MATERIALAK

1. CURRICULUMA

2. IRAKAS-MATERIALA

3.3.3. Eremu sozioekonomikoa

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 47, 48, 49, 50, 51 eta 52. artikuluekin lotutako neurriak.

A. ARAUBIDEA

B. HIZKUNTZA GUTXITUA KONTSUMO-HARREMANETAN

1. OSASUNA ETA SEGURTASUNA

2. PRODUKTU ETA ZERBITZUEI BURUZKO INFORMAZIO PUBLIKOA

3. GATAZKAK

4. EKONOMIAKO FUNTSEZKO SEKTORE ETA ZERBITZUETAKO KONTSUMITZAILEEN
ESKUBIDEAK HIZKUNTZA GUTXITUAN ERE SUSTATZEN DIRA

C. HIZKUNTZA GUTXITUA LAN-EREMUAN ETA LAN-MERKATUAN

D. ENPRESEN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

3.3.4. Onomastika

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 31, 32, 33. eta 34. artikuluekin lotutako neurriak.

A. ENTITATE AUTONOMO BAT ONOMASTIKA ESTANDARIZATZEKO

B. PERTSONA-IZENAK

C. LEKU-IZENAK

3.3.5. Hedabideak eta teknologia berriak

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 35, 36, 37, 38, 39 eta 40. artikuluekin lotutako neurriak.

A. OINARRIZKO NEURRIAK

B. INFORMAZIOA HIZKUNTZA GUTXITUAN JASOTZEKO ESKUBIDEA

1. JABETZA PUBLIKOKO HEDABIDEAK
2. JABETZA PRIBATUKO ETA HERRI-EKIMENEN HEDABIDEAK
3. IKUSGARRITASUNA SUSTATZEKO NEURRIAK
4. EDUKIA
5. HEDABIDE BERRIAK
6. HEDABIDEETAKO PROFESIONALAK
7. MUGAZ GAINDIKO HARREMANAK

C. TEKNOLOGIA BERRIAK

3.3.6. Kultura

Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 41, 42, 43, 44, 45 eta 46. artikuluekin lotutako neurriak.

A. KULTURA JASOTZEKO ESKUBIDEA

B. HIZKUNTZA GUTXITUAN SORTUTAKO KULTURA

1. SORKUNTZARAKO LAGUNTZA
2. TRANSMISIOA
3. IKUSGARRITASUNA

C. KULTURA UNIBERTSALA HIZKUNTZA GUTXITUAN

Dena dela, eremukako neurriak atal horietan guztietan kokatzen badira ere, badira Protokolo guztia ardatzen duten neurri nagusiak, hain zuzen ere, printzipio orokorretan biltzen direnak.

Hizkuntza-eskubideen bermeari edota egoera gutxiagotuan dagoen hizkuntza baten berreskurapenari lotzen bagatzaizkio, badira, bai ala bai, bermatu beharreko lau zutabe sendo. Horietako bat gizartearen atxikimendua da, eta Protokoloaren prozesuak izan duen babesa kontuan hartuta, ez dago zalantzarik zutabe hori sendoa dela egoera gutxituan dauden hizkuntzetan. Beste hiru zutabeak, aldiz, botere publikoei dagozkie: corpus juridiko egokia, politika plangintzatua eta baliabide egokiak (eta egoki kudeatuak). Horrexegatik, hain zuzen ere, hiru zutabe horiek arestian aipatu ditugun sei eremu horietako neurrietan behin baino gehiagotan agertu arren, ezinbestekoa zen Protokoloaren printzipioetan ere txertatzea.

Hona hemen, beraz, Protokoloaren printzipio orokorrak eta printzipio orokorrei lotutako neurriak:



Batzorde Zientifikoaren bilera Andoainan 2016ko urrian.

A. HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK

1. Araututa dago hizkuntza-eskubideak giza eskubideak direla.
2. Edozein hizkuntzatako hitzunen oinarrizko eskubideei dagokienez, pertsona orok du interprete baten laguntza jasotzeko eskubidea, epaitegian erabiltzen den hizkuntza ulertzen ez badu edo hizkuntza horretan hitz egiten ez badaki.
3. Edozein hizkuntzatako hitzunen oinarrizko eskubideei dagokienez, atxilotu orori berehala jakinarazten zaio, ulertzen duen hizkuntza batean, zergatik atxilotu duten eta zer leporatzen dioten.

B. HIZKUNTZAGATIKO DISKRIMINAZIOA

4. Legearen arabera hizkuntzagatiko diskriminazioa onartezina da.

C. HIZKUNTZAREN ESTATUSA: HIZKUNTZA OFIZIALAK

5. Legeak errekonozimendu ofiziala eta estatus ofiziala esleitzen dizkio hizkuntza gutxituari.

D. LEGEAK

6. Administrazioak lege eta araudiak onartu ditu hizkuntza gutxituaren estatus ofiziala garatu eta arautzeko.
7. Jarduera oro hizkuntza gutxituan egiteko aukera bermatuta dago.

E. NEURRI ZUZENTZAILEAK

8. Hizkuntza-komunitatearen hizkuntza gutxituta edo baztertuta badago, Administrazioak neurri zuzentzaile osagarri bereziak hartzen ditu hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
-

F. BALIABIDEAK

9. Baliabide materialak, diru-baliabideak eta giza baliabideak bermatuta daude hizkuntza-komunitatearen eskubideak babesteko.
-

G. NEURRI POSITIBOAK

10. Hizkuntza gutxiuak lehenasuna du hizkuntza ofizial eta nagusiaren aurrean.
-

H. UNIBERTSALTASUN-PRINTZIPIOA

11. Hizkuntzaren ezagutza unibertsaltatzeko neurriak abian daude, hezkuntzan bereziki.
-

I. ZEHAR-LERROTASUNA

12. Zeharkako ikuspegia aplikatzen du Administrazioak bere ekintzetan; erakunde publikoko atal, departamendu eta alor guztietan aplikatzekoak diren neurri eta irizpide orokorrak finkatu eta zehaztu dira, hizkuntza gutxitua jendaurreko hizkuntza eta barne-laneko hizkuntza izan dadin.
 13. Hizkuntza-eskubideak babestu eta zehar-lerrotasuna bermatzearren, administrazioak hizkuntza-politikari zuzendaritza politikoa leku zehatza esleitzen dio, gainerako atal guztietan eragin zuzen eta esanguratsua izan dezan.
-

J. HIZKUNTZAREN ARNASGUNEAK

14. Hizkuntza gutxitua nagusi den eremuetan, Administrazioak eta Instituzioek errekonozimendu eta lege-babes berezia bermatzen dute.
-

K. MEMORIA HISTORIKOA

15. Administrazio publikoak baliabideak eskaintzen ditu gaur egun hizkuntzaren galerari buruzko ezagutza izateko.
-

Neurri horiek guztiak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren 1, 2, 5, 7 eta 10. artikuluekin lotutakoak dira. Halere, horietatik guztietatik badira erabat desberdinak diren bi neurri, bigarrena eta hirugarrena hain zuzen ere.

Behin eta berriz esan dugu Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan biltzen diren eskubideak Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak identifikatutako hizkuntza-komunitateei lotzen zaizkiela. Halere, bigarren eta hirugarren neurriak herritar guztiei bermatu beharreko eskubideak dira, edozein hizkuntzatan jardun nahi dutela ere. Kontuan hartu behar dugu badirela oinarrizko giza eskubide batzuk, zeintzuk edozein herritarri edozein tokitan bermatu behar zaizkion. Horien artean kokatzen dira epaitegian interprete bat ahalbidetzea epaiketa ulertu ahal izateko, edota atxiloaldian zergatik atxilotu zaituzten hizkuntza ulergarrian jasotzea. Horrexegatik iruditu zitzaigun oinarrizko bi eskubide horiek printzipio orokorretan

jaso behar zirela. Beste kontu bat da, noski, lurralde bateko hizkuntza-komunitatearen eskubideak bermatzeko neurriak. Horrela, justiziaren eremuan, esaterako, batetik izango genuke printzipio orokorretan jasotzen dena, alegia, edozein herritarri edonon bermatzeko neurriak; eta, bestetik, berezko hizkuntza erabili nahi duten herritarrek interprete gabe deklaratu ahal izateko neurriak abian jartzea. Neurri horiek administrazio publikoaren atalean jasotzen dira.

Horiek dira, beraz, 185 neurri horien artean berezitasunen bat agertzen dutenak, subjektuari dagokionez. Gainerakoak, lehen esan bezala, Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak definitutako hizkuntza-komunitateari lotzen zaizkio.

4. Hizkuntzetara egokitzeko tresna: kaiera

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren proiektua hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako eragileekin partekatu izan denean, ikusi da oso beharrezkoa zela gizarte eragileok geure proposamen bateratua mahai gaineratzea, baina, aldi berean, oso argi ikusi da hizkuntza-komunitate bakoitzari dagokiola horren betetze-mailak nolakoa izan behar duen definitzea eta zehaztea.

Arras desberdinak dira egoera gutxiagotuan dauden hizkuntzen egoera, eta horrexegatik, hain zuzen ere, hizkuntza-komunitateek zeinek bere ibilbide-orria zehaztu behar du, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa erabilgarria izan dadin. Izan ere, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloan jasotako 185 neurriak betetzeak ontorio bat eragingo luke, hizkuntza-komunitate horri Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean aitortutako eskubide guztiak bermatzen zaizkiola.


Zalantzarik ez dago hizkuntza baten berreskurapen-prozesua dinamikoa dela, baina arrazoi horregatik ezinbestekoa da epeak zehaztea, prozesuak denboran amaiera izan behar duela irudikatzea ezinbestekoa da. Hartara, berreskurapen-prozesuari so gauden honetan, lehen urratsa hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzea da lehen geltokia, eta Kaiera delako dokumentuak hizkuntza-komunitatearen esku utziko du epeen denboralizazio hori zehaztea.

Kaiera Protokoloan jasotako neurrien betetze-maila neurtu, aurrera begirako helburuak ezarri eta horien jarraipena egiteko balio duen tresna malgua da. Hizkuntza-eskubideak gizarte-esparru espezifiko batean edo lurralde-eremu zehatz batean bermatzeko lan egiten duten eragileek Protokoloko neurri batzuk bete daitezten lortzean jarriko dute arreta. Horregatik, Kaierak bi erabilera eredu izan ditzake:

- 1- Kaieraren erabileraren *eredu integrala* legoke. Hizkuntza-komunitate oso baten beharren inguruan lan egiten duen eragile batek, edo hainbat eragilek elkarlanean, egingo lukete hau. Hitzunen hizkuntza-eskubide guztiak behatu eta horien bermatze-mailari neurria hartzeko asmoz, Protokoloko neurri guztiekin osatu beharko litzateke Kaiera kasu horretan. Kasu horretan, aukera legoke hizkuntza-komunitate gutxiagotuetako gizarte eragileek neurrien betetzea hurrenkera baten arabera zehazteko. Izan ere, guztion desioa neurri guztiak epealdian osoki betearaztea baldin bada ere, hizkuntzen egoeren arabera aukera izango da epealdi bakoitzerako bete beharreko neurriak zein izango diren zehazteko.

2- Kaieraren erabileraren eredu partziala legoke. Kasu horretan, gizarte eragileek gizarte-esparru edo lurralde-eremu zehatz bateko neurriei erantzunez erabiltzeko aukera izango dute. Aipatutakoak bi adibide besterik ez dira hain zuzen ere, Kaierak Protokoloa baliatzeko eskaintzen duen malgutasuna erakusteko. Hizkuntza-komunitate bakoitzak eta eragile bakoitzak bere behar eta errealitatera egokitu dezakeen tresna da.

Gizarte eragileek helarazirako ekarpenak lauhundik gorakoak izan dira. Ekarpen horiekin 185 neurri osatu dira, Batzorde Zientifikoari esker. Halere, horiek erdiesteko tarteko urratsak edo neurriak beharrezkoak izan daitezke. Kaiera betetzeko neurri bakoitzaren diagnostia egin behar da, epealdi batean beteko diren neurrien hautaketa zehaztu, neurria betetzeko eskumena duen instituzio edo administrazioa identifikatu eta guztia era ordenatuan planifikatu.



Protokoloaren Talde Antolatzailea osatzen duten sei eragileetako eta Kontseiluko ordezkariak

Kaiera taula moduan aurkezten da, gizarte-eragileek modu ordenatuan zehaztu ahal izateko zein diren hurrengo urteetarako erronkak. Taulak honako elementu hauek jasotzen ditu.

A. NEURRIA

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak biltzen dituen neurriaren zenbakiak jasotzen ditu zutabe horrek.

B. ADIERAZLEA

Neurri bakoitzari Batzorde Zientifikoak adierazle bat (edo gehiago) esleitu dio.

C. NEURRI HORI BETETZEKO ESKUMENA DUTEN ERAKUNDEEN IDENTIFIKAZIOA

Hizkuntza-politikaren gaineko eskuduntzen titularitatea zeharo desberdina da hizkuntza-komunitate bakoitzean, eta beraz, komunitateak berak zehaztu beharko du neurri hori betetzea zein instituziori edo administrazioari dago-kion.

D. BETETZE-MAILA

Diagnostikoan, egun neurri hori zein mailatan betetzen den zehaztuko da, eta horretarako bost mailako eskala baliatuko da.

E. EGIAZTATZE-ELEMENTUAK

Egiaztatze-elementuak neurriak betetze-maila modu objektiboan frogatzeko euskarriak dira. Taulan neurriaren betetze-maila frogatzeko zein elementuak egon behar duen zehaztuko da, beti ere, neurriaren betetze-mailaren egiaztatzea errazagoa izan dadin.

F. LEHEN EPEALDIA

Protokoloaren balio nagusia neurrien zehaztasunean dago. Halere, neurriak bete daitezten edo haien betetze-maila emendatu dadin jarri beharreko helburuek eta eman beharreko urratsek epe zehatzak behar dituzte. Hori egin ezean, hizkuntza-komunitatearen hizkuntza-eskubideak inoiz ez bermatzeko arriskua egon daiteke. Gauzak horrela, Kaieran proposatu da diagnostikoa prestatutakoan, hurrengo denboraldirako epea bost urtekoa izatea. Hizkuntza-komunitateek aukera dute beste epealdi bat zehazteko, baina neurri guztiekin erabili beharko dute epealdi bera. Epealdi horretarako hautatutako neurriaren betetze-maila noraino emendatu behar den zehaztuko da. Hau da, epealdirako betetze-mailaren helburua ezarriko da.

G. BIGARREN EPEALDIA

Lehen epealdiak helburu zehatzak definitzeko balio badigu ere, bigarren epealdiak epe luzeagorako ikuspegia izaten lagunduko digu. Horregatik proposatzen da bigarren epealdia hamar urtekoa izatea uneko egoeratik abiatuta. Hor ere neurriaren betetze mailaren helburua zehazteko aukera izango da.

Hasieran esan bezala, hizkuntza-komunitateen eskubideak bermatzea da lehen geltokia gure hizkuntzen normalizazio-prozesuan, eta Protokoloak eremu horretan gizarte eragileon ahotsa bildu nahi izan du. Gizarte eragileoi dagokigu, beraz, Protokoloari aitortza egin eta tresna erabilgarri bihurtu.

5. Etorkizuneko ildo estrategikoak

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloak berak ezarri du zein diren etorkizunerako ildo nagusiak. Zortzigarren artikulua arabera, abenduaren 17tik aurrera Protokoloaren lanketarekin jarraitu ahal izateko Jarraipen Batzordea eratu da. Proiektuaren jatorrizko eta oinarritzko espirituari jarraiki, Batzordea gizarte eragi-

leek osatuko dute. Halaber, lehen Batzordea Protokoloa bideratu duen Talde Antolatzaileko eragileek osatuko dute.

Horrekin batera bost funtzio nagusi ezarri zitzaizkion Batzordeari, eta funtzio horiek dira, hain zuzen ere, etorkizunari begirako lan-ildo nagusiak:

5.1. Gizarte eragileak Protokoloari atxikiaraztea

Protokoloaren prestatze-prozesuan helburu bat ezarri genion geure buruari, hain zuzen ere, ahalik eta hizkuntza-komunitate gutxiagotu gehienekin harremanak egitea, egoera desberdinetan oinarritutako ekarpenak jasotzeko. Hartara, helburua ez zen izan eragile kopuru altua erdiestea, aitzitik, egoera desberdinetarako baliagarria izango zen tresna nahi genuen, eta beraz, hizkuntza-kopuruari erreparatu zitzaion. Gainera, lehen fase horretan, Protokoloarekin bat egiten zuten eragileek dokumentua bere sentitzea nahi genuen, eta guztien ekarpenak txertatzeko ahalgina egin zen.

Orain, bigarren fase bati emango zaio hasiera, eta ondorioz, Jarraipen Batzordeak lan egingo du hizkuntzen alde lan egiten duten gizarte eragile gehiagok sina dezaten Protokoloa.

5.2. Protokoloaren inplementazioa barne politiketan

Hauxe izango da Protokoloaren baliagarritasunik handiena, hain zuzen ere, hizkuntza bakoitzaren egoerara ekartzea eta, horren arabera, Protokoloak biltzen dituen neurriekin eta adierazleekin Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko urratsak eta horien hurrenkera nahiz tempusak zehaztea.

Hori betetzeko, lehen urratsa hizkuntza-komunitate bakoitzak arestian aipatutako Kaiera prestatzea izango da. Modu horretara Protokoloak bere translazioa izango du hizkuntza gutxitu bakoitzera eta eguneroko politiketan eragiteko balio izango du.

Zalantzarik ez dugu herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa eta, ondorioz, Protokoloa barne politiketan inplementatzeko errazen egin dezakeen instituzioa udala dela. Horrexegatik, hurrengo hilabeteotan lanketa berezitua egingo da Protokoloak biltzen dituen 185 neurri horietatik udalen zuzeneko edo zeharkako eskumena zein diren zehazteko. Urteetan zehar egiaztatu ahal izan du euskalgintzak, bai eta egoera gutxiagotuan dauden beste hizkuntza-komunitateetako eragileek ere, aukera handiagoak izan dituztela udaletako hizkuntza-politiketan eragiteko. Gainera, gure eguneroko bizitzan udalekin ditugu harreman gehienak, hortaz, udaletako hizkuntza-politiketan eragiteko tresna bihurtuko dugu Protokoloa, eta horretarako, *Udal Kaiera* delako dokumentua sortuko dugu.

5.3. Kaieren bateratzea eta partekatzea

Gizarte eragileek Kaiera betetzen dutenean, horren ale bat Jarraipen Batzordeari helaraziko diote. Jarraipen Batzordeak horiek baliatuko ditu beste hizkuntza-komunitate batzuetako eragileei Kaierak prestatzen laguntzeko.

Uste dugu Protokoloa elkartasun linguistikoaren adibidea izan dela, eta gero ere, nahiko genuke elkartasun horrekin jarraitu. Ikusi dugu hizkuntzen egoera

ez ezik, hizkuntzen berreskurapenaren alde lan egiten duten eragileen egoera ere oso desberdina dela Europan zehar. Horrela, Protokoloaren bidez guztiontzako bil-gunea sortu nahi dugu hizkuntza-komunitate bakoitzak jorratutako proposamenak elkarrekin trukatzeko.

Euskarari dagokionez, Kontseiluak erantzukizunez jokatu nahi du. Egia da, bai, euskararen kaiera eredugarria izatea nahi dugula, eta horrexegatik Kontseiluak Kaiera hori betetzeko prozesu partehartzaile zabala egingo du 2017an zehar. Ho-rrela, euskalgintzako eragileez gain hizkuntzaren normalizazio-prozesuan zeresana eta zeregina izan dezaketen gizarte eragileak ere Kaieraren prestakuntzara ekarri nahi ditugu.

Kaierak ibilbide-orri bat eskainiko du, alegia, neurri guztiak bete daitezen epemuga zehatza. Gainera, Kaiera alor guztietako eragileen arteko ariketa izango da, eta aukera emango du elkarrekin hitz egin, hausnartu eta bidea jorratzeko.

5.4. Protokoloaren aitortza instituzioetan

Gizarte eragileek tokiko, eskualdeko, erregioko edo Estatuko instituzioetan Proto-koloari aitortza emateko egingo duten lanketaren jarraipena egingo du Jarraipen Batzordeak. Halaber, Protokoloari aitortza egiten dioten toki, eskualde edo estatu mailako instituzioen zerrenda gaurkotuko du.

Epe laburreko estrategiari dagokionez, Protokoloaren aitortza udaletatik eto-rriko delakoan gaude, eta hor kokatzen dugu, aurreko atalean azaldu bezala, *Udal Kaiera*. Horrela, lehen helburua Europako udalek Protokoloarekin bat egin eta be-raien eskumenei zuzenean zein zeharka lotzen zaizkien neurriak betetzea izango da.



Protokoloaren aurkezpena Kursaal jauregian, 2016ko abenduaren 17an, Europako hizkuntza-komunitate-etako ordezkariak.

Horixe da, zalantzarik gabe, Protokoloak instituzioetan izan dezakeen aitortzarik handiena.

Halere, epe luzeagoko estrategiari ere hasiera emango zaio aurten, eta hor kokatzen da Estatu mailako edo autonomia-erkidego mailako gobernu batzuek Protokoloa bere egitea.

Behin eta berriro adierazi dugu Protokoloak ez duela inolako balio juridikorik edota loteslerik. Halere, kontuan hartuta Protokolora iristeko egin den bidea eta egun duen sostengua balio sinboliko eta politiko handiko dokumentua dela uste dugu. Milioika hiztunen interesak defendatzen dituzten eragileek prestatutako proposamena da eta, beraz, erakundeek kontuan hartu beharrekoa.

5.5. Protokoloaren legitimazioa nazioarteko instituzioetan

Protokoloaren arabera, Jarraipen Batzordeak lanketa iraunkorra egingo du Protokoloari nazioarteko instituzioetan legitimazioa aitor diezaiten, bai eta erreferentziako dokumentu bihurtu dadin ere.

Lehenik eta behin, kontuan izan behar dugu sinatu eta jarraian Protokoloaren eta Kaieraren ale bana igorri zitzaiera Nazio Batuen Erakundeko, Europako Kontseiluko eta Segurtasun eta Lankidetzarako Europako Erakundeko goi arduradunei. Halaber, Protokoloa prestatzerakoan Bartzelonako Deklarazioa oinarri nagusia izan bada ere, hiru erakunde horietako oinarritzko itunak ere izan dira erreferente, eta beraz, orain dokumentu horien eta Protokoloaren arteko uztarketa nola egin zehaztu beharko dugu.

Esan behar dugu lehen urratsak egin direla eta aukerak daudela Europako Kontseiluko Erregio edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Itunako arduradunekin lanketa bateratua egiteko.

6. Azken hitza

Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza-errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza-aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu Protokoloa. Eta, horrexegatik, tresna bat eskaini nahi dugu bide honetan, hain zuzen ere, gizarte ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena, bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza-komunitateekiko jardun demokratikoaren bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Hizkuntza guztiak dira nortasun kolektibo baten adierazpen, bai eta errealitatea modu desberdinean hautemateko eta deskribatzeko tresna ere; hortaz, funtzio guztietan garatu ahal izateko baldintzak izan behar dituzte. Halaber, hizkuntza bakoitza kolektiboki eraikitako errealitatea da, eta komunitate haren barruan norberaren erabilerarako erabilgarri bilakatzen da, kohesioaren, identifikazioaren, komunikazioaren eta adierazkortasun sortzailearen tresna gisa. Horrexegatik, hain zuzen ere, Protokoloa osatu dugun eragileok uste dugu hizkuntza-komunitate orok

eskubidea duela baliabide propioak antolatu eta kudeatzeko, gizarte-funtzio guztietan bere hizkuntzaren erabilera ziurtatzeko helburuarekin, bai eta hizkuntzaren transmisioa eta hizkuntzaren etorkizuneko proiektzioak bermatzeko beharrezko baliabideak izateko ere.

Halere, European hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa oso desberdina da toki batetik bestera, eta horrek biziki kezkatzen gaitu. Izan ere, arestian esan bezala, hizkuntza-eskubideak oinarrizko eskubideen barruan kokatu behar baditugu, eta berdintasunean oinarritutako Europa justuago baten alde egiten badugu, aniztasunaren kudeaketa demokratikoak oinarrizko zutabe izan beharko luke.

Kudeaketa-eredu desberdinak bai, non mutur batean egoera gutxiagotuan dauden komunitateen eskubideen aitortza eta bermea kudeaketaren ardatza diren; eta beste muturrean egoera gutxiagotuan dauden komunitateei existentzia bera ere ez zaien aitortzen. Horiexek dira, bai, hizkuntza-kudeaketaren eredu bi muturrak, eta bi mutur horietako edota horien arteko politika arras desberdinak garatzen dira egun European zehar.

Kudeaketa-ereduak desberdinak izan arren, hizkuntza gutxiagotuen berreskurapenaren alde lan egiten duten gizarte eragileek antzekotasun handiak dituzte. Hizkuntzen egoera desberdinak dira, bai, baina gizarte eragileen, alegia, gizarte zibilaren lanari esker lortu izan dira emaitzarik eragingarrienak. Gizarte zibila izan da aitzindaria hitzun berriak sortzeko proiektuak garatzen. Gizarte zibila izan da aitzindaria hiztunenentzako espazio berriak sortzeko proiektuak garatzen. Gizarte zibila izan da aitzindaria hizkuntza gutxiagotuetan bizi ahal izateko tresnak sortzeko proiektuak garatzen. Eta, jakina, gizarte zibilak aldarrikatu du hamarkadetan zehar hizkuntza-komunitateek zeinek bere hizkuntzan bizitzeko eskubidea. Hartara, gizarte zibilak benetako demokrazia bermatzeko kanpaina iraunkorra egin izan duela ondorioztatzen dugu, eta, beraz, zilegitasun osoa ematen diogu gizarte zibilari etorkizunerako urratsak zein izan beharko lirakekeen definitzeko.

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren ekarpen praktikoaz harago, beste behin azpimarratu nahi dugu gizarte zibiletik eta gizarte zibilak adostutako proposamena izan dela, eta prozesu honen helburu nagusienetakoa izan dela hizkuntza-komunitateak prozesu horretan subjektu gisa aurkeztu eta gizarte bera hizkuntza-kudeaketa justuaren bermatzailea izan dadila aldarrikatzea.

Hizkuntzen beharretatik lan egiten duten ehunka eragile horiek, ezelango mendekotasun politiko edo instituzionalik gabekoak, milioika hitzunen bozeramaile dira, eta horixe da Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren indargunea.

Indar ikaragarri hori ikusgarria izan zen abenduaren 17an Donostiako Kur-saal jauregian Protokoloaren lehen eragile sinatzaileen taldea aurkeztu genuenean. Europako hogeita hamar hizkuntza baino gehiagoko ehunik gora eragile osatu dute lehen talde hori, eta horiek guztiak bozgorailu bihurtuko dira. Eragile horiek guztiak gizarte ongizatean, bizikidetzan eta bakean oinarritutako Europa berri bat eraikitzeko bozgorailuak izango dira, izango gara. Bagara nor!!!